

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUMENA ETA ESPAZIO PUBLIKOA

Jarduera sailkaturako lizentzia eskatzea

Jarduera instalatzeko udal lizentzia eskatu dute ondoren adierazten diren pertsonak, azaltzen diren lekuetarako:

Dosier-zenbakia: 2016/lacact00028

Eskatzailea: Energiaren Euskal Erakundea

Jarduera: energia elektrikoa hornitzeko linea berria (ekipo elektrogenoa + etenik gabeko elikadura-sistema industrial)

Kokalekua: Albert Einstein kalea, 48

Horrenbestez, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko 3/1998 Legearen 58. artikuluan xedatutakoaren ildotik, jendaurrean jartzeko epea zabaltzen da, jarduera horiek nola edo hala eragiten dietela uste dutenek horiei buruzko dosierak aztertzerik izan dezaten —Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren Saileko Administrazio Zerbitzuan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behe), jendaurreko orduetan—, eta egokitzen jotzen dituzten alegazioak egin, hamabost eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo lehenengo lanegunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 26an

Ingurumenaren eta Espazio Publikoaren administrazio-burua

EUSEBIO-MARTÍN MACHO PÉREZ